

LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL LEGEAREN AURREPROIEKTUAK HAUR ETA NERABEENGAN ETA FAMILIARENGAN DUEN ERAGINAREN EBALUAZIOA

Sarrera:

Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa **haurren** (18 urtetik beherako pertsonen) **giza eskubideak** aitortzen dituen **nazioarteko tratatu** bat da. NBEren Batzar Nagusiak 1989ko azaroaren 20an aldarrikatu eta onartu zuen **Konbentzioa**, eta bertan ezartzen dira haur guztien eskubide besterenezinak, baina baita estatu, botere publikoen, senideen eta gizarte osoaren betebeharrak ere, eskubide horiek errespetatzen direla bermatzeko. Giza Eskubideak bermatzen eta babesten dituzten eta juridikoki lotesleak diren nazioarteko tresnetako bat da Konbentzioa.

Konbentzioak 54 artikulua ditu, haurren **eskubide ekonomiko, sozial, kultural, zibil eta politikoak** zehazten dituztenak, bai eta **3 protokolo osagarri** ere, zeinak jarduketamekanismo bereziak baitira: i) haurren salerosketari eta sexu-esplotazioari buruzko protokoloa; ii) haurrek gatazka armatuetan esku hartzeari buruzko protokoloa; eta iii) Haurren Eskubideen Batzordean salaketak aurkezteko jarraitu beharreko komunikazio-prozedurei buruzko protokoloa –aditu independentez osatutako organo horrek gainbegiratzen du estatu kideek Konbentzioa aplikatzen dutela–.

Giza eskubideen nazioarteko itunik zabalduena da Konbentzioa, eta 196 herrialdek berretsi dute; guztiek, Ameriketako Estatu Batuek izan ezik –Konbentzioa berresteko prozesua osatu ez duen herrialde bakarra–. Espainiako parlamentuak 1990eko azaroaren 30ean berretsi zuen Konbentzioa, eta 1991ko urtarrilaren 5ean jarri zen indarrean. Konbentzioa berretsi ondoren, estatu kide bakoitzari dagokio Konbentzioa bermatuko duten arau-esparruak eta politika publikoak onartzea.

Espainiar estatuan, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen **uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak** estatu osorako esparru juridiko bat ezartzen du, bat datorrena adingabeak eskubideen subjektu izatearekin eta haiei eskubide horiek gauzatzeko gaitasun progresiboa aitortzearekin. Lege horren 22. artikulua adierazten du lege-aurreproiektuekin batera aztertu behar dela arauak haurrengan eta nerabeengan duen eragina.

Gainera, **Familia Ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen arabera**, «lege-aurreproiektuekin eta erregelamendu-proiektuekin batera aurkeztu behar diren araudi-inpaktuen azterketen memoriak araudiak familiengan duen eragina jaso beharko dute».





Haurren Munduko Egoeraren¹ arabera (UNICEF, Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsak urtero egiten duen txostena), 2030era bitartean, 69 milioi haur baino gehiago hilko dira ekidin daitezkeen gaixotasunengatik. 2015eko datuak kontuan hartuta, ekidin daitezkeen gaixotasunek eragindako haurren heriotzen % 80 hegoaldeko Asian eta Saharaz hegoaldeko Afrikan gertatu ziren.

Txosten horren 2030erako aurreikuspenen arabera, 167 milioi haur pobrezia-egoeran biziko dira, 124 milioi haur ez dira lehen eta bigarren hezkuntzara sartuko eta 750 milioi neskato oraindik ere haurrak direla ezkontzera behartuko dituzte.

Egoera kezkarri horren aurrean, EAEko lankidetzako eta elkartasuneko politikak munduko haurren eta nerabeen eskubideen aldeko jarduerak garatzen ditu. 2014 eta 2020 urteen artean, EAEko administrazio nagusiek² 17,5 milioi euro inguru bideratu zituzten haurrentzako 200 ekimen baino gehiagotara³. Baliabideen ia erdiak (% 46,5) Afrikara bideratu ziren, oinarrizko giza eskubideak (hezkuntza, osasuna eta elikadura) eskuratu eta baliatzeko lankidetzak-jardueretan, bai eta emakumeen eta nesken aurkako indarkeriaren kontrako ekimenetara ere.

Haurrei arreta ematera bideratutako ekintza humanitarioko jarduerak bideratutako zenbateko osoaren % 32,6 jaso zuten, eta hainbat arazori heltzen diete, hala nola larrialdietan oinarrizko elikagaiak hornitzea, gatazka armatuek eragindako haur errefuxiatuei eta desplazatuei arreta ematea edo haur soldaduak desmobilizatzea.

1. Arauaren identifikazioa.

Txosten honen aztergaia da Lankidetzari eta Elkartasunari buruzko Euskal Legea, eta lege horren helburua da EAEko administrazio publikoen lankidetzak-politika arautzea. Lankidetzak- eta elkartasun-politika da, arau horren arabera, hegoaldeko herrialdeetan giza garapen jasangarria eta krisi humanitarioen arreta eta EAEko gizarte-eraldaketarako hezkuntza sustatzen dituzten jardueren multzoa.

Memoria honen edukian, eta arestian aipatutako araudietan aurreikusitakoarekin bat etorritik⁴, Lankidetzari eta Elkartasunari buruzko Legearen aurreproiektuak haur, nerabe eta familiengan izango duen eraginaren ebaluazioa EAEko biztanleriaren gainean egingo da. Memoria honetan ez da aipatuko beste herrialde batzuetan gauzatzen diren lankidetzak- eta elkartasun-politikek izan dezaketen eragina, zalantzarik gabe, haurren, gazteen eta familien eskubideak sustatu eta zabaltzean eragin arren.

¹ Txosten osoa hemen kontsultatu: <https://www.unicef.es/noticia/estado-mundial-de-la-infancia-69-millones-de-ninos-moriran-hasta-2030-por-causas-evitables#:~:text=El%20n%C3%BAmero%20de%20ni%C3%B1os%20que,seguir%C3%A1n%20viviendo%20en%20la%20pobreza.>

² Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta EAEko hiru hiriburuetako udalak.

³ Iturria: Geuk egina, Euskal Lankidetzak Publikoaren Atariko datuekin.

⁴ Zehazki, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa eta Familia Ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legea.

2. Arauak haurren zer eskubideri eta beharrizani eragin diezaiokeen identifikatzea.

2.1. Arauak haurren zer eskubide zehatzi eragin diezaiokeen:

Ebatzi da arauak ez duela eraginik izango haurren eskubideetan. EAEko familiei dagokienez, ebatzi da arauak ez duela eraginik izango haien eskubideetan.

2.2. Arauak haurren zer beharrizan oinarrizkori eragin diezaiokeen:

Arauak EAEko haurren **beharrizan** hauei eragingo die gehienbat: hezkuntzarako eskubidea eta parte hartzeko eskubidea (edo entzuna izateko eskubidea).

Aurreproiektuak aitortzen du oso garrantzitsua direla EAEko herritar guztien hezkuntza-jarduerak –elkartasun-balioak sustatzearekin eta munduan dauden desberdintasunen ezagutza kritikoarekin zerikusia dutenak–, nahiz eta jarduera batzuk ikastetxeekin edo aisialdiko elkarteekin lankidetzan egiten diren, eta zuzenean haurrei eta nerabeei, edo haurren eta gazteen aisialdiaren eremuko ikastetxeetako irakasleei eta hezitzaileei bideratuta dauden arren.

Nolanahi ere, aurreproiektuak ez du aurreikusten hezkuntza-arloko edo parte-hartzeari buruzko berariazko araurik garatzea.

2.3. Arauaren eragin berezia haurren, nerabeen eta familien talde jakinen gainean eta haien egoeretan.

Ez du eragin berezirik ezein taldetan.

Alde batetik, lankidetzaren eta elkartasunaren arloko politika bultzatzeko neurriak eta tresnak ez daude arautegian zehaztuta; aitzitik, neurri eta tresna horiek EAEko administrazio publikoen plangintzetan (urteko eta urte anitzeko planak) definitzea aurreikusten da. Haurren, nerabeen eta familien inguruabar bereziei dagokienez, aipatu plangintza horietan edo hautatutako tresnetan aurreikusi beharko da eragin berezia, eta ez lege-aurreproiektu honetan.

3. Haurrengan duen eraginaren analisia.

3.1. Haurren, nerabeen eta familien beharrizanei eragiten dieten arauaren alderdi zehatzak

Esan bezala, hauek dira arauaren aplikazio-eremuko jarduerak: lankidetzan eta elkartasunean heztea eta sentsibilizatzea helburu dutenak, adingabeen parte-hartzearekin.

Lankidetzaren eta elkartasunaren esparruko boluntariotzari dagokionez, legeak 21. artikuluan (EAEko boluntarioak) araututako eskubideak aitortuko zaizkie adingabeei. Nolanahi ere, azpimarratu behar da boluntarioen jarduerak arlo horretan indarrean dagoen araudiaren mende daudela. Zehazki, Boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Estatuko Legean (arau horrek apartatu espezifiko bat du adingabeen boluntariotzaren baldintzak arautzeko) eta urriaren 14ko 45/2015 Lege autonomikoan xedatutakoaren arabera.

3.2. Hasierako egoera eta arau onartzeak sor ditzakeen aldaketak.

EAE n Gizarte Eraldaketarako hezkuntza-jarduketan barruan egiten diren ekimenei dagokionez⁵, honako datu hauek nabarmendu behar dira: 2014 eta 2020 artean, eLankidetzak 3,2 milioi euro inguru bideratu zituen herritar guztientzako hezkuntza-jarduerak sustatzera. Jarduera horiek zuzenean lotuta daude haurrak eta gazteak, irakasleak eta aisialdiko hezitzaileak sentsibilizatzearekin. Gobernu kanpoko erakundeek (GKE) sustatutako jarduera gehienak EAEko ikastetxeekin edo aisialdiko eskolekin lankidetzan egiten dira, eta haurren eta nerabeen balio solidarioak sustatzea dute helburu.

Aurreproiektuak ez du aldaketarik aurreikusten egoera horri dagokionez; izan ere, 2.3 apartatuan adierazi den bezala, aurreproiektuak zehazten du EAEko administrazioen plangintzetan zehaztu behar direla lehentasunak, eta horien artean zehaztu daitezkeela haurren eta nerabeen eskubideak gauzatzea bermatuko duten neurri eta tresna espezifikoak.

3.3. Arau onartzeak ekarriko dituen emaitzen aurreikuspena.

Arauk aukera emango du hezkuntza- eta partaidetza-beharrizanen arretan sakontzeko. Eskubideok araututa daude haurren, hezkuntzaren eta gazteriaren arloan indarrean dauden araudietan. Ikastetxe eta aisialdiko zentroekin lankidetzan, hezkuntza- eta partaidetza-jarduerak haurren eta nerabeen parte-hartzearekin garatzearen xedea izango da balio solidarioak eta munduko desberdintasunen ezagutza kritikoa sustatzea.

4. Haurrengan duen eraginaren balorazioa.

Txosten honetan azaldutakoaren arabera, arauak eragin positiboa du hezkuntza- eta partaidetza-jardueretan parte hartzen duten EAEko haurrengan eta nerabeengan, balio solidarioak eta munduko desberdintasunen ezagutza kritikoa sustatzeko.

Familian duen eraginari dagokionez, ebatzi da arauak ez duela eraginik batere, arau onartzeak ez baitu ekarriko EAEko familien egoera ezertan aldatzea.

5. Eragin positiboa lortu ahal izateko neurriak

Gaur-gaurkoz, aurreproiektuan ez da aldaketarik edo zuzenketarik egin, EAEko haurren, nerabeen edo familien eskubideak benetan gauzatzea eragozten duten egoerak zuzentzeko edo konpontzeko.

Aztertu egin behar dira lege-aurreproiektuari egiten zaizkion ekarpenak, hauetako baten gainekoak badira: i) arauaren aplikazioa, ii) eragin negatiboa ekidin dezaketen neurri osagarriak, edo iii) EAEko haurrengan, nerabeengan eta familiengan eragin positiboa berma dezaketen neurri osagarriak.

⁵ 2017az geroztik, EAEko administrazio nagusien hezkuntza-arloko jarduerak gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren EAEko strategiaren barruan egiten dira –(H)ABIAN 2030–. Informazio gehiago: https://www.elankidetz.euskadi.eus/contenidos/informacion/inf_habian/eu_def/adjuntos/H-ABIAN_2030-eusk.pdf

6. Txostenaren eranskina

Txosten hau lantzeko, informazio-iturri hauek erabili ditugu:

- Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa:
<https://www.un.org/es/events/childrenday/pdf/derechos.pdf>
- Haurren Munduko Egoera. UNICEF:
<https://www.unicef.es/noticia/estado-mundial-de-la-infancia-69-millones-de-ninos-moriran-hasta-2030-por-causas-evitables#:~:text=El%20n%C3%BAmero%20de%20ni%C3%B1os%20que,seguir%C3%A1n%20viviendo%20en%20la%20pobreza>
- Euskal Lankidetzaren Publikoaren Ataria:
<https://euskalankidetzaren.hegoa.ehu.eus/eu/site>
- Jarduera-memoria, eLankidetzaren 2020
https://www.elankidetzaren.euskadi.eus/contenidos/informacion/doc_interes_memorias/eu_pubmem/adjuntos/MEMORIA-2020_eus.pdf
- (H)ABIAN 2030 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Estrategia Informazio gehiago:
https://www.elankidetzaren.euskadi.eus/contenidos/informacion/inf_habian/eu_def/adjuntos/H-ABIAN_2030-eusk.pdf

PAUL ORTEGA ETCHEVERRY

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN ZUZENDARIA

Elektronikoki sin.